

ESTRATEGIA
2030

DONOSTIA. AUKEREN HIRIA.



Donostiako Estrategia Bulegoa
Camino Kalea 2, behea 20004
Donostia, Gipuzkoa
T. 943 428 086
F. 943 424 406
estrategia@donostiafutura.net

AUKEREN HIRIA

AUKEREN HIRIA	04
ONGI ETORRIA	06
EDSS LANKIDETZA EKOSISTEMA	08
EDSS METODOLOGIA	10
TIMELINE	12
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN ESTRATEGIA	14
IZAERA PROPIOA	16
OREKA	18
HIRIA	20
LIDERGOA	22
ABANGARDIA	24
PARTE HARTU	26

Aukeren hiria

Gure hiria aukeratu dugu.
Bakoitzak gure motibazioarekin.
Eta, gaurtik aurrera, pertsona
guztien artean nahi dugun hiria
eraiki dezakegu.

Izaera gara

Oreka gara

Hiria gara

Lidergoa gara

Abangoardia gara

Donostia,
gaur eta bihar.
Donostia beti.

Ongi etorri
E2030DSSra.

Ongi etorria

- “Gure hiriak oinarri sozial aktiboa, prestatua eta ekintzailea du, eta, tamaina ertaineko hiria izanik, beste edozein hirik desiratzeko moduko bikaintasun-mailak eskaintzen ditu”.

Eneko Goia

Aukeren hiria.
Nahi dugun Donostia.



Donostia izango da donostiarrok nahi duguna.

Baieztape hori begien bistakoa izan daiteke, baina erantzukizun handia dakar berekin. Hurrengo belaunaldiei, gure seme-alabei, utziko diegun hiria gure **ekintzen**, gure **erabaki eta apustuen**, egiten dugun lan kolektiboaren eta **gure ahalegin eta ilusioak** bateratzearen baitan egongo da.

Hiri baten etorkizuna diseinatzea eta proiektatzea ez da arriskurik gabeko zeregina. Bete-betea asmatu dezakegu, edo konturatu gabe huts egin. Etengabe aldatzen ari den mundu honetan, berrikuntza zientifikoei, teknologikoei, sozialei eta kulturei dagokienez etenik gabeko mugimenduan ari den mundu honetan, ausartegia da iragarri nahi izatea zer bideri jarraitu behar diogun.

2030 Plan Estrategikoa sortzeko hainbat urtez egin dugun lanaren **helburua gaur egun daukaguna baino hiri hobea izatea izan da**. Herritarrek gustura sentitzeko moduko hiria. Denok harro egoteko moduko hiria. Auzoen arteko kohesio handiagoa emango duten zerbitzu hobekak dituen. Nork bere bizi-proiektua hobeto gauzatzeko aukera ematen duena. Aukeren hiria.

Horretarako, pertsona askorekin lan egin dugu, gizarte zibileko kideekin, beste erakunde batzuekin eta hainbat eragile garrantzitsuekin... **entzuteko eta ikasteko prozesu batean**. Horren emaitza izan da hiri honek hurrengo hamarkadarako planteatu duen dokumentu estrategikoa.

Baliteke hamar urte barru gure inguruko errealitatearen zati bat eraldatuta egotea: hiriko fisionomiak berak aldaketa garrantzitsuak izango ditu; **bilakaera teknologikoari** esker, ingurune konektatuagoetan biziko gara; adimen artifizialak aurrera egingo du nabarmen... Moldatu egin beharko gara, eta gure ohiturak aldatu, **klima-aldaketaren** erronka handiak planteatzen dizkigun helburuak **lortzeko**.

Baina belaunaldiak ere prestatu beharko ditugu **egokitzapen** eta **erresilientzia** ariketa etengabe batean datozen aldaketa sakonen aurrean.

Hiri adimenduz baino, nahiago dut **herritar adimenduz** hitz egin. Horixe da hiri baten benetako indarra. Herritarrek ematen diotena, makinek eta algoritmoek gure bizitza hobetzeko duten ahalmenaz baino askoz ere harago doana. Zorionez, gure hiriak oinarri sozial aktiboa, prestatua eta ekintzailea du, eta, tamaina ertaineko hiria izanik, beste edozein hirik **desiratzeko moduko bikaintasun-mailak** eskaintzen ditu.

Donostia giza eskalako hiria da. Gure ekonomia eta berrikuntza sarea, gure hezkuntza eta prestakuntza sarea, gure kultur ekimenak, eliteko kirolaren euskarri den gure oinarritzko kirol-jarduera, gure nortasuna eta gure sustraiak... Donostiako balioen bilbatura horrek guztiak sare sendo bat osatzen du, eta sare horretan oinarritzen dira gure etorkizuna definitu behar duten apustuak.

Udala aktore bat gehiago da -garrantzitsua, baina ez bakarrik- gure etorkizun hurbilaren ibilbide-orria marrazteko orduan. Badakit erakundeek zeregin horretan lagundu dezakegula eta, are gehiago, lagundu egin behar dugula. Baina inozoak ginatete pentsatuko bagenu gure etorkizuna Udalak bakarrik erabakiko eta zehaztuko duela. **Gutako guztiok eraiki behar dugu gure hiria, egunerokotasunean**: negozioaren pertsiana altxatuz, gure kale eta plazak garbi eta seguruak mantenduz, gure auzokideei lagunduz, gure ekintzen bidez berdintasun eta elkartasun balioak berretsiz, hain harro sentiarazten gaituzten balio horiek.

Gure hiriaren etorkizuna ez dago idatzita. **Donostia izango da donostiarrok nahi duguna**. Gure esku dago orrialde distiratsu bat idaztea, gure Historia inspiratzeko modukoa.

Honenbestez:

Eneko Goia Laso
Donostiako alkatea

EDSS

Lankidetz

Ekosistema


Azken bi hamarkadetan landutako **ekosistema kolaboratibo** baten barruan garatu da hiriaren estrategia, eta, denbora horretan, finkatuz eta haziz joan da pixkanaka, etengabeko lanari eta adostasunaren bilaketari esker.

Beraz, **ikuspegi eta estrategia komun** bat eraiki da, borondateak bildu eta norabide berean jarriz, gairik kritikoen erantzun bat emateko helburuarekin, alderirik garrantzitsuenetan sakonduz eta eragile guztien ahaleginak hiriaren etorkizunari buruzko ikuspegi bateratu bat lortzera bideratuz.

Eta hiriko organo aholku-emaile nagusia den **Donostiako Gizarte Kontseiluarekin** lankidetzan egin da hori guztia. Eragile, erakunde, politikari eta udal arloetako teknikariekin osatutako hainbat lan-taldek osatzen dute Kontseilua, eta, halaber, tailerrak, bilerak eta era askotako ekitaldiak egiten dira.


Bestalde, 300 elkarrizketa-ordu egin dira hiriko strategiarekin lotutako alorretan adituak diren pertsonekin.

Azken finean eta oroz gain, amesten dugun Donostiaren diseinuan parte hartu duten **pertsona guztien inplikazioari esker landutako proiektu plural eta kolektibo bat** da.



Pertsonak...

Iñaki • Carolina • Andoni Luis • Jonander • Juantxo • Amaia • Mikel Mirena • Duñike • Garikoitz • Isabel • Paulo • Joxe Mari • Ane • Iñaki • Ander • Ander • Jesus • Iñigo • Xabier • Pablo • Óscar • Antxon • Patrick • Garbiñe • Itziar • Xabier • Jon • Sayuri • Ander • Aurkene • Ángel • Yoanna • Gerardo • Nerea • Imanol • Unai • Amalur • Amalur • Raúl • Xabier • Jokin • Pilar • Harkaitz • Txuri • Txuri • Aitzole • Juana • Anton • Xabier • Daniel • Mikel • Mikel • Jone • Iñigo • Miguel Ángel • Urdangarin • Xabier • Félix • Maddi • Felix • Ainhoa • Marisa • Juan José • Juan José • Julio • Iñigo • Elena • Maddi • Jon Ander • Jon Ander • Nekane • Maria Soledad • Jaione • Óscar • Pedro • Jose M^a • José Miguel • Coro • Edorta • June • Karmele • Santiago • Félix • Ramón • Raquel • Aitor • Jon • Elorri • Josu • Juanba • Edorta • Xenki • Amaia • Jone • Juan Carlos • Xabier • Jokin • Lourdes • Carlos • Pilar • Pilar • José M^a • Marti • Ricardo • Ricardo • Begoña • Héctor • June • Yoni • Ned • Reyes • María • María • Maddi • German • Gregorio • Laura • Iñigo • Jon • Norka • Pedro • Ibon • Filgi • Borja • Antonio • Fernando • Miguel Angel • Andoni • Juan Carlos • Jesus • Noemi • Xabier • Manu • Lala • Miguel Ángel • Fernando • Carmen • Ricardo • Jaime • Iñaki • Olaia • Arrate • Iñigo • Xabier • Lola • Odon • Antton • Unai • Unai • Jon • Jon • Domitila • Paloma • Itziar • Jesús María • Santí • Jose Miguel • Iñaki • Agustín • Pedro • Iker • Paco • Zigor • Pedro Miguel • Juan Carlos • Mítxel • Rafael • Eduardo • Miren Aranzazu • Lourdes • Julián • Julián • Haiett • Manuel • Carlos • Beatriz • Carmen • Javier • Olatz • Naiara • Haizea • Manuel • Mila • Carlos • Javier • Iñigo • Jose M^a • Alberto • Leticia Rosibel • Rafael • Juan Ignacio • Pejo • Félix • Julián • M^a Carmen • M^a Carmen • Marisol • Koro • Cristina • Jon • José Manuel • Luis • Eneko • Gorka • Gorka • Iker • Borja • Ander • María Teresa • Izaskun • Igor • Manuel • Maider • Maider • Juan José • Bora • Abdoulaye • Iñaki • Diego • Julen • Julen • Joxean • Joxean • Lidia • Lidia • José M^a • Miren Jaione • Zuriñe • Marta • Martin • M^a Jesus • Kaiet • Juan • Jon • Mujika • Miren • Álvarez De Eulate Balda • Maribel • Andoni • Olga • Anjel • Lourdes • Iñigo • Eduardo • Esther • Alazne • Luxia • Tomas • Marta • Ander • Iris • Beñat • Beñat • Eduardo • Marta • Jorge • Belkis • Ana • Nahia • Nahia • Kepa • Iñigo • Nerea • Nerea • Mertxe • Aritz • Cristina • Michela • Leire • Francisco • Juan Luis • Mikel • Victor • Imanol • Joseba • Germán • Mikel • Amaia • Arantza • Arantza • Arantza • Itxaro • Lourdes • Irene • Pilar • Alberto • Arantza • Adur • Francisco Javier • Francisco Javier • Imanol • Mikel • Manuel • Paul • Gurutz • Luis • Dani • Iraida • Manuel Martin • Adolfo • Javier • Elena • Julen • Iñaki • Lourdes • Mikel • Juan • Miguel • Ainar • Kino • Pedro • Antonio • Iñaki • Iker • Adriana • Mikel • José M. • José Luis • Mikel • Alex • Lara • Juan • Ines • Aritz • Marta • Javier • Luis • Ana • Clara • Clara • Adolfo • Jorge • Javier • Iñigo • Joxean • Pedro • Mikel • Luis • Naiara • Javier • Manu • Fernando • Miren • Iraia • Aizpea • Iñigo • Iñigo • Nicolás • Leire • Edurne • Irene • Jon Markel • Bittor • Julián • Jaime • Edurne • Juana • Ane • Oihane • Ales • Koldo • Ane • José • Santiago • Joaquín • Itziar • Carlos • Javier • Gabriel Esteban • Jose M^a • Javier • Javier • Patxi • Fernando • David • José Luis • José Luis • Maite • Eluska • José Ramón • Ander • Xabier • José María • Javier • Josse Andrés • Dani • Ivan • Dani • Josemari • José Antonio • Iñaki • Eva • Aitor • Julia • Cesar • Fernando • Yon • Aitziber • Eider • Gorka • Mikel • José Manuel • Mikel Gotzon • Alfonso • Idoia • Jon Ander • Carmen • Carmen • Iñigo • Eukén • Stefania • Marcos • Aitor • Susana • Susana • David • Fernando • Imanol • Oscar • Estibaliz • Ana • Enara • Ander • César • César • Iñigo • Ana • Judith • Rosa • Pedro • Asier • Usoa • Arola • Adolfo • Cristina • Adriana • Iñigo • Benito • Olatz • Juan M^a • Jesús • Maite • Alfonso • Eduardo • Concha • Concha • Guille • Rafael • Juan Ramon • Jorge • Óscar • Asier • June • Javier • Mariñe • Joseba • Jesus • M^a Luisa • Oihana • Javier • Aitziber • Mikel • Imanol • Daniel • Carlos • Sebastián



GIZARTE KONTSEILUA

PLAN ESTRATEGIKOAREN LAN BATZORDEA

ELKARTEAK, ERAKUNDEAK

HERRITARRAK

EDSS

Metodologia

Zeharkako eta sektore anitzeko ikuspegia duen metodologia darabilgu, eta metodologia horren erdigunean, gure baliorik garrantzitsuen dago: pertsonak.

Diagnostiko estrategikoa

Guztion artean, inor atzean utzi gabe. Horrela labur dezakegu Plan Estrategikoa egiteko dugun modua. **Gure lan egiteko modua. Gure metodologia.** Hiriaren lehentasunak eta **ekintza-lerroak** adostasunez identifikatzeko eta **etorkizun**erako amesten dugun Donostiarantz pausoak emateko tresna gisa ulertzen dute plangintza estrategikoa. Erronka nagusiei erantzun integral bat ematen saiatzen gara, hiriaren egoeran oinarrituz, etorkizuneko nahi dugun hiriaren **ikuspegi adostu** bat eraiki ahal izateko. Ibilbide bat marratzen dugu, gizarte, kultura, ekonomia, erakunde eta hainbat sektoretako eragile publiko nahiz pribatuek ikuspegi hori **partekatu** ahal izateko.

Azken finean, **zeharkako eta sektore anitzeko** ikuspegia duen metodologia darabilgu, eta metodologia horren oinarrian, gure baliorik garrantzitsuen dago: **pertsonak**.

Haiek gabe, haien inplikaziorik gabe, prozesu estrategikoez ez lukete zentzurik izango.


Izan ere, pertsonen parte-hartzeaz gain, metodologia eta ezagutzak elkar elikatzen dira. Gure helburua: **etorkizuna diseinatzea**, eta, aldi berean, hiriko eragileak eta, oro har, herritarrak **ahalduntzea**, proiektu estrategikoen bitartez. Horixe da gure balio bereizgarria.

Egiteko gure modu berezia: **TEA**, **"Think-Elkarrekin-Act"**.



Think-Elkarrekin- ACT Metodologia

Garapen partekatua



Timeline

JATORRIA

ESNATZEA

2000

JAIOTZA

ESTRATEGIA
BULEGOAREN
SORKUNTZA

2010

2010



UDALAREN AKORDIOA HIRIARENTZAT
1 PLAN ESTRATEGIKOA BULTZATZEKO:
1^{go} PLAN ESTRATEGIKOA 2010.

Egitasmoak /

Donostia Turismoa

Biozientzien estrategia

San Telmo Museoen berritzea

Aquariumaren berritzea

Hiri-mugikortasun jasangarria

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea

2. PLAN ESTRATEGIKOA 2010-2020
2020DSS ESTRATEGIA

Egitasmoak /

Donostia Lagunkoia

Zientzia eta Berrikuntzaren Hiria

Basque Culinary Center

Talent House

Tabakalera

Berdintasuna

Kulturaren Europako Hiriburua

Klima Aldaketaren Estrategia - KLIMA 2050

3 plan
3 hamarkadatarako,
emaitza anitzekin

AINZATESPENA

OREKA

2020

2030

Izaera propioa,
oreka,
hiria,
lidergoa eta
abangoardia.

3. PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2030 2030DSS ESTRATEGIA

Egitasmoak /

Biopolo

Nanozientziak

Adimen artifiziala

Gastronomiaren estrategia

Turismo eta Merkataritza jasangarriak

Gaztetzea

Hiri inklusiboa

Kultura

Hiri Garapen Iraunkorra

Nazioarteko posizionamendua eta proiektzioa

Donostia / San Sebastián Estrategia



Aurrerapauso handiak egin ditugula jakin arren, badakigu mundua ez dela inoiz ere gelditzen. Bizitza aldatu egin daitekeela ustekabeen. Eta pertsonok egokitzen jakin behar dugula. Egunero ilusioari eutsiz.

Denboraren joanarekin, izan ginena oroitzapen bihurtzen dela. Eta orain garena izan nahi dugunaren abiapuntu dela. Gure inguruabarrak arretaz aztertuz. Nahi dugun horren ikuspegia galdu gabe. Gure kezkek elikatuz.

Gure hiria aukeratu dugu. Bakoitzak bere motibazioarekin. Eta elkarrekin, nahi dugun hiria eraiki dezakegu, gaur bertatik hasita.

Ongi etorri Donostia EDSS estrategiara.

E2030DSS plan estrategikoa 5 zutabe sendoren gainean dago eraikita, eta zutabe horietan bermatzen dira helburu estrategikoak eta ekintza-lerroak.

Gure ikuspegian, izaera gehiago, oreka gehiago, hiri gehiago, lidergo gehiago eta abangoardia gehiago gara:

IZAERA

Izaera + gara.

Gizarte inklusiboago, gazteago eta lagunkoiago batean bihurtuko garelako.



ABANGOARDIA

Abangoardia + gara.

Gure elkarbizitza-eredua eraikiko dugulako, abangoardiako gobernantza-eredua, hiri-garapen eredua eta kultur-eredua sortuz.



OREKA

Oreka + gara.


Jarduera ekonomikoaren, turismoaren eta merkataritzaren oreka-puntu egokienean paratuko dugulako gure balantza.



HIRIA

Hiri + gara.

Etengabeko hobekuntza bultzatuko dugulako, hiri jasangarri, bizi eta irekia bermatuz.




LIDERGOA

Lidergo + gara.

Bikaintasunaren bilaketa gure DNAn dagoelako, eta *ongi egindako lanari* esker, tokiko mailan, gastronomian eta sormenean dugun lidergoa aitortuko digutelako.

Izaera propioa gara

+
IZAERA
INKLUSIBOA,
GAZTEA,
LAGUNKOIA.



Inklusiboagoa, gazteagoa eta atseginoagoa den gizartean bihurtzeko, planak espezifikoak diren 3 helburu estrategiko eta 11 ekintza-ildo gaineratu ditu.



Helburua 1

Izaera inklusiboa 2030

Gizarte inklusiorantz aurrera egitea, eta **berdintasunaren** alde eta **gizarte bazterketako** egoera oro **saihesteko** borrokatzea (arrazoi ekonomikoen, generoaren, etxerik ez izatearen eta, oro har, kalteberatasun egoeren ondoriozko bazterketak), eta **etorkinak integratzeko eredu bat** sortzean eta aplikatzean ere aurrera egitea.

Ildoak /

- 1.1 Hiri inklusiboa. Donostiako Gizarteratzeko Plana lantzea eta garatzea Gizarteratzeko Hiri Itunaren esparruan.
- 1.2 Erakundeen lankidetzaren bultzatzea.
- 1.3 Gizarte eta espazio ekitatera bideratutako neurriak.
- 1.4 Etorkinen integrazioa.

Helburua 2

Izaera gaztea 2030

Hiriaren **gaztetze demografikoa** sustatzea, populazio berria hirira etorriz, gazteria erakarriz eta hirian gera dadin saiatuz eta familia eta lana bateratzeko erraztasunak emanez.

Ildoak /

- 2.1 Lan-mahai bat sustatzea erronka demografikoari eta biztanleriaren gaztetzeari erantzuteko.
- 2.2 Tokiko laguntza Donostiako familien garapenari.
- 2.3 Gazteen inplikazioa eta aitzindaritzak.
- 2.4 Biztanleria berriaren etorrera ahalbidetzeko eta kudeatzeko neurriak.

Helburua 3

Izaera lagunkoia 2030

Adinekoen eta laguntza behar duten pertsona guztien bizi kalitatea bermatzea, neurri koordinatuak eta bateratuak hartuz (hainbat motatako erakunde aldetik), bizitza independentea eta duina eta zahartze aktiboa bultzatzeko, bakardadearen aurka borrokatzeko eta behar bezala eta denboran zehar mantenduz planifikatzeko beharrak (banakakoak nahiz kolektiboak) eta **egoera zaurgarrienean dauden taldeen laguntza** (bakarrik dauden adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak...).

Ildoak /

- 3.1 "Ongi zahartzen" lagunduko duen, pertsonen beren bizi zikloan zehar lagunduko dien eta komunitate erresilienteagoaren eta lagunkoiagoaren eraikuntza sustatuko duen hiri estrategia bat garatzea.
- 3.2 Gizartearen zahartzearen eta bere ondorioen erronkari buruzko eztabaida eta hausnarketa gunea.
- 3.3 Laguntza eta zaintza eredu berrikustea.

Oreka gara

**+
OREKA EKONOMIKOA,
TURISTIKOA,
KOMERTZIALA.**



Balantza ekonomiaren,
turismoaren eta kontsumoaren
oreka-puntu egokienean
paratzeko, 3 helburu espezifiko eta
14 ekintza-lerro zehaztu dira.



Helburua 4

Oreka turistikoa 2030

Turismo jasangarriko eredu bat garatzea, hirian finkatutako jarduera ekonomiko bat eta beharrezkoa den oreka uztartuz, donostiarrek eta hiria bisitatzen dutenek hiriaz era normalizatuan gozatu ahal izateko.

Ildoak /

- 4.1 Hirian bikaintasunean oinarritutako turismo inklusiboa, jasangarria, adimentsua eta erresilientea bultzatzeko gogoeta estrategikoa.
- 4.2 Turismo segmentu estrategikoak: Balio erantsi handiko segmentuak finkatzea.
- 4.3 Marketin turistikoa/norako branding-a. Hiriaren marka eta bere erakarmen turistikoa indartzea eta berritzea.

Helburua 5

Oreka ekonomikoa 2030

Industria jarduera aurreratuko lurralde batean kokatuta dagoen eta hirugarren sektorean oinarritzen den hiri baten **garapen ekonomiko orekatua** eta dibertsifikatua indartzea, eta, horretarako hauek sustatzea: enplegua, zerbitzu aurreratueta eta industrian oinarritzen diren jarduerak, eta besteak beste, nanozientzietan, biozientzietan, osasunean edo neurozientzietan gora doazen ezagutza esparruak, Donostian dauden gaitasun handietan oinarritzen direnak.

Ildoak /

- 5.1 Hiriko Zientzia eta Berrikuntza sistema finkatzeko eta garapen handiagoo emateko Estrategia bat lantzea.
- 5.2 Hiriko Biozientziak-Osasun sektorea sustatzea egungo ekosisteman, bere aukeretan eta lankidetzak publiko-pribatuan oinarrituz.
- 5.3 Eraldaketa teknologikoaren aukerak baliatzeko neurriak ezartzea, bereziki Zibersegurtasunaren, Adimen Artifizialaren eta Nanozientzien arloetan.
- 5.4 Laguntza ekintzaitzari eta enplegu duin eta kalitatezkoari.
- 5.5 Enpresa kulturaren eraldaketa sustatzea.
- 5.6 Lankidetzak /elkarlan balioak sustatzea.
- 5.7 "Ekonomia berdearen" garapena ekonomia zirkularra eta eraldaketa energetikoa sustatuz.

Helburua 6

Oreka komertziala 2030


Hirian finkatuta dagoen eta hiriko bizi kalitateari eta oparotasun ekonomikoari laguntzen dion **merkataritza berezi eta hurbila** indartzea.

Ildoak /

- 6.1 Donostiako merkataritza eraldatzeko eta biziberritzeko Plan bat lantzea eta garatzea.
- 6.2 Berrikuntza teknologikoa eta hiriko merkataritza jardueraren lehiakortasuna hobetzea.
- 6.3 Tokiko merkataritza babestea: Hirian eta bere auzoetan integratutako merkataritza berezia, gertukoa, estrategikoa, irisgarria eta lagunkoia babesteko eta sustatzeko programa.
- 6.4 Donostiako merkataritza eredu jasangarria eta adimentsua. Neutraltasun klimatikoaren bidean aurrera eginez eta hiriaren eredu osatzen duten gainerako estrategiekin lerrokatuta.

Hiria gara

+
HIRI
JASANGARRIA,
BIZIA, IREKIA.



Etengabeko hobekuntza bultzatu eta hiri jasangarri, bizi eta irekia bermatzeko, 3 helburu estrategiko espezifiko eta 9 ekintza-lerro zehaztu dira.



Helburua 7

Hiri jasangarria 2030

Garapen Iraunkorrerako Helburuak sustatzea **hiria eraldatzeko** esparru gisa, eta **arreta pertsonen artean** jartzen jarraitzea, tokiko 2030 Agenda eta horren barneko konpromisoak lurraldeko eragileekin eraikita.

Ildoak /

7.1 E2030DSS Estrategia Garapen Jasangarrirako Helburuekin-GJH eta 2030 Agendarekin lerrokatzea.

7.2 GJH Tokiko Agendaren inguruko kontzientziazioa eta bultzada.

7.3 E2030DSS Estrategia eta GJH Tokiko Agendarekin hartutako konpromisoa monitorizatzeko eta jarraipena egiteko sistema eraikitzea.

Helburua 8

Hiri bizia 2030

Hiriko bizitzaren kalitatea eta etengabeko hobekuntza bermatzea eta, hiriaren **berezko izaeratik** eta gastronomian, kulturean, jakintzan... aitortuta duen iruditik abiatuta, **nazioarteko proiektiorako** estrategia bat diseinatzea, hiriaren gaitasunetan ez ezik, lurraldearen sustraietan ere oinarrituko dena.

Ildoak /

8.1 Hiriko bizi-kalitatea hiri osasuntsu batean.

8.2 Kirol-jarduera sustatzea hainbat ikuspegitatik: osasungarria, inklusiboa, irisgarria, federatua...

8.3 Auzoetako zuzkiduraren eta beharizanen oreka. Hiri-kudeaketaren optimizazioa.

8.4 Nazioartekotze eta posizionamendu arloko estrategia.

Helburua 9

Hiri irekia 2030

Hiriaren posizionamendua indartzea, maila anitzeko lankidetzak publiko eta pribatuan oinarritutako **lidergo partekatua** eraikiz, eta kanpoan proiektzioa izateko bultzada ematea.

Ildoak /

9.1 Erakundeen arteko lankidetzak: erakundeen arteko lankidetzak sustatzeko neurriak bultzatzea.

9.2 Hiriak lurraldean duen partaidetza hobetzeko ekintza-programa sustatzea (Euskal Hiria, Eurohiria...).

Lidergoa gara

+
LIDERGOA TOKIKO
INGURUMENEAN,
GASTRONOMIAN ETA
SORMENEAN.



Hiriak eta lurraldeak tokiko mailan, gastronomian eta sormenean duen lidergoa areagotzeko erronkak herritarren bikaintasunerako eta lana ondo egiteko ardura du oinarri. Erronka hori 3 helburu estrategiko espezifikotan eta 13 ekintza-lerrotan oinarritzen da.



Helburua 10

Lidergoa ingurume- nean 2030

**Hiri erresiliente bat sustatzea, osasunaren, gizartearen, ekonomia-
ren eta ingurumenaren inguruko erronkei,
tokian tokikoei eta globalei, aurre
egiteko prest dagoena, Klima
2050 Estrategia eta egokitzeko eta
arintzeko estrategiak ezarriko dituen,
mugikortasuneko eta baliabideen
kudeaketako ereduaren eraldaketa
jasangarria garatuz eta hiri metabolismo
zirkularerantz aurrera eginez, eta
nazioartean erreferente bihurtuko dena
ingurumen jasangarritasunaren eta
Klima aldatetari aurka egitearen eta
egokitzearen arloan.**

Ildoak /

- 10.1 Hiriko erresilientzia ereduaren sortzeko hausnarketa prozesua / Erresilientziarako lantaldea.
- 10.2 Klima-neutraltasuna eta Klima 2050 Estrategia aurrera eramatea.
- 10.3 Ingurumen estrategia, bizi-kalitaterako eta garapen ekonomikorako aukera gisa.

Helburua 11

Lidergoa gastrono- mian 2030

Mundu mailako **gastronomian** aitzindari diren hiri eta lurraldeen taldean dugun **posizionamendua** indartzea, berrikuntza kultura gastronomiko tradizionalaren babesarekin uztartuz.

Ildoak /

- 11.1 Hirirako estrategia gastronomiko bat eraikitzea.
- 11.2 Gastronomian espezializatutako lan-mahai bat osatzen laguntzea lankidetzara aktibo publiko-privatua bideratzeko eta hiriko gastronomiaren behatokiarena ere egiteko.
- 11.3 Gastronomiaren balio kate osoan ekintzaitza eta belaunaldi erreleboa sustatuko dituen agentzia bat bultzatzea, programa integral bat eta proiektuetarako eta talentuetarako laguntza plan bat eskaintzeko.
- 11.4 Gastronomia donostiarrari buruzko marketin eta komunikazio estrategia/plan bat ezartzea.
- 11.5 Hirian Elikadura Osasungarri eta Jasangarrirako Estrategia/Plan bat lantzea eta txertatzea.
- 11.6 Gastronomia donostiarraren kultura balioak (elkarte gastronomikoak, herri gastronomia...) indartzea tokiko nortasun elementu gisa eta belaunaldien arteko harremanetarako, kulturen arteko integrazioarako eta gizarteratzerako eta hiriaren markaren proiektioarako bide gisa.

Helburua 12

Lidergoa sormenean 2030

Aurrerapausoak ematea **sormen eta kultura industriaren** garapenean eta, bereziki, ikus-entzunezkoen sektorean eta diseinuaren eta musikaren sektorean.

Ildoak /

- 12.1 Tokiko sormen eta kultura sektorearen sormena eta profesionalizazioa bultzatzea.
- 12.2 Ikus-entzunezkoen sektorea garatzea (teknologia, formakuntza eta gizarte berrikuntzako neurrien bidez).
- 12.3 Hirian musikaren sektorearen garapen handiagoa sustatzea.
- 12.4 Sorkuntza eta kultura jardueraren hiriko espazio eta auzoetako kultura eta hiria biziberritzeko tresna/bide gisa.

Abangoardia gara

+

**ABANGOARDIA
GOBERNANTZAN,
HIRI-GARAPENEAN,
KULTURAN.**



Gure elkarbizitza-eredu propioa eraikiko dugulako, abangoardiako gobernantza-eredua eta hiri-garapen eredua sortuz eta kultur estrategia berri bat aplikatuz. Erronka garrantzi horiek 3 helburu espezifiko eta 11 ekintza-lerroren bitartez zehaztu dira.



Helburua 13

Abangoar- diako governantza eredua 2030

Administrazio publiko adimendun, berritzaile eta modernizatu bat garatzea, eraldaketa teknologiko eta digitalaren buruan arituko dena, eta hiriaren gobernantzan, aurrerabidean eta erresilientzian **eragile publiko eta pribatu** eta erakunde guztien arteko **lankidetz**a bideratzeko gai izango dena.

Ildoak /

13.1 Tokiko administrazioaren modernizazioa.

13.2 Ekialdeko Barrutiko herritarrak gehiago ahaldunduko dituen gobernantza eredu bat (eta maila anitzeko gobernantza).

13.3 Lidergoa tokiko administrazioaren eraldaketa teknologiko eta digitalean.

Helburua 14

Abangoar- diako hirigintza iraunkorra 2030

Jasangarritasun irizpideak kontuan dituen eredu bat diseinatzea hiria garatzeko. Eredu horrek giza eskalan mantendu behar du hiria, zabalkundea mugatuz, eta probetxua atera behar die aukera espazioen ondoriozko abaguneei, aurrerabide ekonomikoa eta pertsonen bizi kalitatea hobetzea ahalbidetuz, eta auzoen arteko oreka eta metropoli eta lurralde barruko interkonexio jasangarria bermatuz.

Ildoak /

14.1 Lurraldearen egituraketa orekatu, jasangarri eta inklusiborako planifikazioa.

14.2 Aukera eremu berrien kudeaketa.

14.3 Etxebizitza izateko aukerak erraztea eta etxebizitza Donostiako herritar guztien beharretara egokitzea.

14.4 Hiriko mugikortasun jasangarria sustatzea.

Helburua 15

Abangoardia kulturala 2030

Garaikidetasuna eta **euskal kulturaren** zaintza eta eraldaketa uztartuko dituen **kultura eredu bat** sustatzea, euskara izanik **bizikidetzarako eta komunitatea sortzeko tresna**.

Ildoak /

15.1 Donostiako kultura eredua berrasmatzea. 2016 osteko kultura.

15.2 Euskal kultura eta Euskara bultzatzea.

15.3 Kultura, integrazioarako, bizikidetzarako eta komunitatea sortzeko elementutzat hartua.

15.4 Auzoetako kultura biziberritzea eta erakargarriagoa egitea.

EDSS xedea

Aldaketa sustatzea dugu helburu, gure hiriaren bilakaera, aurrerabidea eta gizarte-, ekonomia- eta lurralde-garapen jasangarria bultzatzeko. Garai berrietara egokituz, etorkizuneko erronkei aurrea hartuz eta mehatxu eta ahulguneak aukera bihurtuz. Lankidetzaz, berrikuntza, esperimentazioa, pentsamendu kritikoa eta pertsonen jarrera prospektiboa sustatuz. Modu horretan, amesten dugun hiria eraiki ahal izateko, **GUZTION ARTEAN**.

Parte hartu nahialduzu?

BISITA GAITZAZU

DEITU

IDATZI

Camino kalea 2. behea
20004 Donostia
Gipuzkoa

943 428 086

estrategia@donostiafutura.net